

EUOPAR KOMUNITATEEN JUSTIZIA AUZITEGIA

Hautaturiko erabaki batzuren kronika (1)

Joxerramon Bengoetxea (2)

DOI: <https://doi.org/10.47623/ivap-rvap.40.1994.1.06>

I. Jurisdikzio osoko epaiak (Errekurso zuzenak). 1. Frantzia Batzordearen aurkako afera: Frantziar Errepublika, Espainiak eta Herri-Beherek lagundurik, Europar Komunitateen Batzordearen aurka, 1994-08-9ko epaia, C-327/ 91 aferan (Osoko Bilkura, hamahiru kidekoa, Edward epaile txostengilea. Tesauro Abokatu Orokorra); (Estatu Batuen eta Batzordearen arteko lehiaketa hitzarmena, lehiaketa, Bidezkotzea, segurtasun juridikoa, lehiaketako zuzenbidearen hausdura). II. Epai-aurreko galdaketak, 177. artikulua araberako epaiak 2. Webb afera: Carole Louise Webben eta EMO Air Cargo (UK) Ltd-ren artean, 1994-07-14ko erabakia, C-32/93 aferan (bostgarren aretoa, bost kidekoa, Grevisse epaile txostengilea, Tesauro Abokatu Orokorra); (Gizonezkoen eta emakumezkoen tratu berdintasuna, 76/207 direktiba, amatasun baimena zeukan enplegatu haurdun baten ordezkapen-kontratazioa, ordezkoa haurdun ere bai, kanporaketa). 3. FacciniDoriaafera: Paola Faccini Doriren eta Recreb Srl-ren artean, 1994-07-14ko erabakia, C-91/92 aferan (Osoko Bilkura, hamahiru kidekoa, Joliet epaile txostengilea, Lenz Abokatu Orokorra) (kontsumitzaileen babesa denda edo lokal komertzialetik at egindako kontratuen kasuan, pribatuen arteko gatazketan direktiba erabilgarria ote den, eragintasun zuzena)

1. Frantzia Batzordearen aurkako afera (C-327/91; 1994.ko Auzitegiko Bilduma, 1-3641 orr.)

I. Sarrera

Gaur egungo sistema ekonomikoak gero eta zabalagoak dira, estatuko mugak gaudituz. Ia ez da estatu-merkatuak gelditzen. Baina merkatuak mugarik ezagutzen ez badu ere, zuzenbideak aldiz bai; hau, usu, ekonomiaren atzetik dihoalarik. Europar Batasuneko merkatu batuan enpresa batzuek kanpoko enprekin salerosketa harremanak izateaz gain hirugarren estatuetakoko merkatuko zati garrantzitsuak berenganatzen dituzte beste enpresekiko lehian. Gauza bera gertatzen da hirugarren estatuetakoko enpresa batzuekin, Komunitateko merkatuko

(1) Kronika honetan erabaki dut HAAEK egindako Europako Itunen terminologia kasu batzuetan ez jarraitzea, ez baitago ados horren proposamen guztiekin; halere saiatu naiz lan horretan agertzen diren terminoak kontutuan edukitzean, egoki iruditu zaizkidanean.

(2) Euskal Herriko Unibertsitateko irakasle titularra/Justizia Auzitegiko letratu. Lan honetan agertzen diren iritziek ez dute dagokion Erakundearen iritzia ordezkatzeko, egilearenak baizik.

zati garrantzitsua eduki dezaketelarik. Horrela gertatzen da Estatu Batuetako enpresa batzurekin. Kasu arruntetan estatu edo jurisdikzio bakoitzak bere lehiaketa-zuzenbidea (3) aplikatzen die bertan aritzen diren enpresei eta estatu horretan eragina duten eragiketei.

Baina gauzak korapila daitezke. Jo dezagun adibidez paperaren merkatu sailan komunitateko merkatuko zati garrantzitsua kontrolatzen duten hirugarren estatuetako enpresa batzuk—kanadarrak, estatu-batuarrak, suediarrek, finlandiarrek— ados jartzen direla paperaren mamiko salneurria finkatzeko edo merkatua kontrolatzeko. Jo dezagun Batzordeak hitzarmen hori EKko lehiaketa-zuzenbidearen aurkakoa dela uste duela. Zer egin dezake Batzordeak hitzarmen horren aurka? Batzordearen jurisdikzioa EKra mugatzen da jakina. Teoria klasikoaren arabera Batzordeak ezin ditu halako lehiaketaren aurkako praktiketaz ezagutu enpresa horiek Komunitatean bulegorik ez badute.

Arazo honi "extraterritorialidad" (lurraldezbestekotasuna) esaten zaio, alegia estatu bateko lehiaketa zuzenbidea estatu horren jurisdikzio edo lurraldetik at aplikatzea. Zenbait kasutan lurraldezbesteko aplikazio hau urrunegi Joan da, hirugarren estatuetan gertatzen diren praktikak kontrolatu nahi izan direlako. Honek, ulertzekoa denez, jurisdikzioari buruzko problemak sor ditzake, eta horregatik estatu batzuk saiatzen dira problema honi hitzarmen berezietz aurre egiten. Nazioarteko zuzenbideak horretarako tresnak hornitzen ditu.

II. Hitzarmena

Hala gertatu da Estatu Batuen eta Batzordearen arteko hitzarmenarekin. Aurretik esan beharra dago Estatu Batuetan (EB) badagoela lehiaketako zuzenbide federala eta estatu zuzenbideak, eta Europar Komunitatean (EK) gauza bera. Bai EBetan eta bai Ekan erakunde bereziak daude lehiaketaren kontrolerako, alegia Antitrust Division of the United States Department of Justice eta Federal Trade Commission alde batetik, eta Batzordea bestetik. EBetako gobernuak (4) eta Batzordeak (5) 1991-9-23an Washingtonen "norberaren lehiaketa zuzenbidearen aplikazioari buruzko hitzarmena" izenpetu zuten. Hitzarmena ez da EKko Aldizkari Ofizialean argitaratu. Gertuagotik azter dezagun hitzarmena.

Bere helburua da bi alderdion arteko elkarlana eta koordinazioa bultzatzea, lehiaketa-zuzenbidearen aplikazioaren inguruko ezadostasunak gutxituz eta leunduz. Horretarako alderdi bakoitzak besteari bere lehiaketa-zuzenbidearen aplikazio neurriak ezagutaraziko dizkio, neurri

(3) alegia Estatu Batuen kasuan Sherman Act, Clayton Act, Wilson Tariff Act, eta Federal Trade Commission Act eta Europar Komunitateen kasuan: EKko tratatuko 85, 86, 89 eta 90 art'ikuluak eta 4064/89 (CEE) enpresen bateratzeari buruzko erregelamendua, EIAK tratatuko 65 eta 66 art'ikuluak eta hauen aplikazio erregelamenduak, eta Autoritate Gorenaren 24-54 erabakia.

(4) W.P. Barr Attorney General eta L. Steiger Federal Trade Commissiongo presidentes.

(5) Sir Leon Brittan Batzorde buruordea.

hauek beste alderdiaren interesak jo ditzaketenean. interes amankomuneko informazio trukea ere aurreikusten da eta lehiaketa zuzenbidearen aplikazio neurrien koordinazioa. Halaber alderdiek elkarri kontsulta diezaiokete. Informazio guztien giltzapekotasun printzipioa bermatzen da. Gainera alderdi batek besteari informazioa emateari uko egin diezaiokete bere zuzenbideak hori galarazten badu edo informazio emate hori bere interes berezietan aurkakoa denean.

Hitzarmenaren konpromisorik handiena 5. eta 6. artikuluetan arautzen da, nazioarteko zuzenbidean horren ezaguna den "comity" izeneko doktrina jasotzen delarik, alegia beste alderdiaren interesekiko begirunea. A-alderdi baten lurraldean beste B-alderdiaren interes garrantzitsuak ukitzen dituzten lehiaketaren aurkako ekintzak gertatzen direnean, B-alderdiak A-alderdiari "notifikazio" baten bidez eska diezaiokete A horren lehiaketarako autoritateek ekintza horien aurkako neurriak har ditzaten (honi "positive comity" esaten zaio). Gainera gatazkak ekiditearren, alderdi bakoitza, aplikazio neurriak aztertzerakoan, beste alderdiaren interes garrantzitsuak kontutan hartzen saiatuko da (honi "traditional comity" esaten zaio).

III. Errekurtsoa

Frantziar errepublikak hitzarmenaren aurkako errekurtsua aurkeztu du, hiru ziotan oinarritzen delarik: (1) Batzordea ez da halako hitzarmena sinatzeko gai, ez baitauka horretarako eskuduntzarik, (2) hitzarmena ez dago bidezkotua edo motibatua eta segurtasun juridikoaren printzipioa bortxatzen du, eta (3) hitzarmenak lehiaketaren zuzenbide komunitarioa hausten du. Batzordearen ustez Frantziak ekarritako errekurtsuak ez du hitzarmenaren aurka jo behar baizik eta Batzordeak bere buruordeari izenpetzeko ahalmentzen dion erabakiaren aurka. Halere Batzordeak ez dio Frantziako errekurtsuari inolako jasoezintasunezko salbuespenik aurkeztu.

Auzitegiak errekurtsua jasogarria dela dio, Batzordeak berak onartu egin duelako hitzarmenak eragin juridikoak dituela eta hitzarmena burutzeko aktua Komunitateko erakunde baten aktoa dela, eta eragin juridikoa duten erakundeen aktuen aurkako errekurtsuak jasogarriak direla (ERTA eaoAETR jurisprudentzia, 22/70 afera, 1971ko bilduma 263). Baina puntu honetanxe Auzitegiak errekurtsuaren hedadura mugatzeari ekiten dio maisuki (17. paragrafoan): Frantziak aurkeztutako errekurtsua ulertu behar da Batzordearen aktuaren aurkako errekurtsu bezala, zeinaren bitartez Batzordeak hitzarmena bereganatu edo burutu duen (conclusion).

IV. Auzitegiaren erabakia eta arrazoiak

Auzitegiak bi galdera nagusiei ekin behar die: alde batetik kalifikazioaren arazoa dago: ezbaian dagoen hitzarmena "nazioarteko hitzarmenatzat", EKko tratatuko 228. artikulua zentzuan, jo behar al da? eta baiezkoan. Batzordeak eskuduntzarik al dauka
horrelako

hitzarmenak izenpetu edo burutzeko?

A. Errekurtsioa aurkeztu zen garaian tratatuko 228 artikulua, lehen paragrafoan horrela zioen:

"Baldin eta Itun honetako erabakiek ezartzen badute Elkartearen eta estatu bat edo gehiagoren edo nazioarteko erakunderen baten artean hitzarmenak egitea, hitzarmen horiek Batzordeak negoziatuko ditu. Batzordeak arlo horretan dituen aginpideen mendean, aipatutako hitzarmenak Kontseiluak izenpetuko ditu, Itun honetan zehaztutako kasuetan Europako Parlamentuaren iritzia eskatu ondoren."

Batzordearen ustez ezbaian dagoen hitzarmena ez da zinez "nazioarteko hitzarmena" baizik eta administrazio-hitzarmena (executive agreement), zeren eta hitzarmena ez bada betetzen ez da Komunitatearentzako inolako nazioarteko erantzukizunik jarraitzen baizik eta hitzarmena bertan behera uzten dela. Gainera hitzarmenak berak argi uzten du ezin dela inolaz ere hitzarmena interpretatu alderdien zuzenbidearekin bat ez datorren moduan edo alderdien zuzenbidea aldatzea suposatuko lukeen moduan. Baldintza horietan Batzordearen administrazio-hitzarmenak burutzeko aginpide edo eskuduntza nabarmena da. Alta, aldi beretsuan Batzordeak onartu egiten du hitzarmenak eragin juridikoak dituela.

Auzitegiak gogoratzen du "hitzarmen" terminoak artikulu horretan daukan zentzu zabala (1/75 iritzia, 1975ko bilduma 1355 han), eta 210 artikulua Komunitateari, eta berari bakarrik, ematen diola nazioarteko hitzarmenen bidez bere burua lotzeko ahalmena. Eta kasu honetan garbi dago hitzarmenak Europar Komunitateak lotzen dituela. Beraz Estatu baten eta nazioarteko erakunde baten nazioarteko hitzarmena da, 1986-03-21.eko "Estatuen eta nazioarteko erakundeen arteko edo nazioarteko erakundeen arteko tratatuen zuzenbideari buruzko" Vienako Ituneko 2, (1), a), i) artikulua zentzuan. Batzordeak hitzarmena beteko ez balu orduan Komunitatearen erantzukizuna jarraituko litzateke nazioarte mailan.

B. Behin hitzarmena "nazioarteko hitzarmena" dela erabaki ondoren, aztertzea da ea Batzordeak hori izenpetzeko aginpiderik ote zeukan. Horretarako Auzitegia hasten da 228 artikulua izaera berezia gogoratuz alegia arau soltea, orokorra eta konstituzionala dela, Komunitateko erakundeen artean eskuduntzak esleiten baititu: Batzordeari negoziazioa dagokio, Parlamentuari aburua ematea dagokio eta Kontseiluak izenpetzen du, "Batzordeak arlo horretan dituen aginpideen mendean". Zeintzuk dira ordea Batzordeak dituen aginpide horiek?

Frantziaren arabera aginpide horiek oso mugatuak dira: estaltzen dira Europar Komunitateen inmunitate eta pribilegioei buruzko Protokoloaren 7. artikulua Batzordeari Komunitateen laissez-passer edo salbokonduktoei buruzko hitzarmenak egiteko eskuduntza ematen dio; estali daitezke, halaber, lanari buruzko hitzarmenak, halanola Nazio Batuekiko edo beste nazioarteko

erakundeekiko kontaktu eta erlazioei buruzko gestio hitzarmenak, tratatuko 229 artikulua aurreikusten duen motatakoak. Baina besterik ez.

Batzordeak hiru argumentu-multzo hornitzen ditu bere eskuduntzaren alde: (1) 228. artikulua eta Batzordearen eskuduntzen interpretazio zabala, (2) Euratom tratatuarekiko antzekotasuna, eta (3) lehiaketa zuzenbidetik Batzordeak eratorzen dituen eskuduntza bereziak. Auzitegiak argumentu hauei erantzuten die.

Batzordeak dio administrazio hitzarmenak burutzeko usadioa duela: 228 artikulua salbuespena zentzu zabalean ulertu behar da, xedapen honen terminoak "Batzordeak arlo horretan dituen aginpideen mende" (frantsesean: "sous reserve des competences reconnues a la Commission dans ce domaine") direlako eta ez "Batzordeari arlo horretan ematen zaizkion aginpideen mende" (sous reserve des competences attribuees a la Commission...). Frantseseko bertsioak argi erakusten du Batzordearen eskuduntzak beste iturritatik jario daitezkeela, alegia erakundeen praktikatik. Gainera Euratom tratatuko 101 (3) artikulua Batzordeari eskuduntza zabalagoak ematen dizkio: Batzordeak halako hitzarmenak izenpe ditzake baldin eta Kontseilua informatzen badu, aurrekontuaren arabera mantengarria badira, eta Komunitateari diru obligazio berririk suposatzen ez badiote. Horrez gain Batzordeak eskuduntza berezi bereziak dauka lehiaketaren zuzenbidean.

Auzitegiak lehenengo argumentu sareari interpretazio-irizpide sorta bat gogoratuz erantzuten dio (33-36 puntuetan). Hasteko "Batzordeak arlo horretan dituen aginpideen mende" esaldia Kontseiluari eskuduntza ematen dion erregela orokorrekiko salbuespena da (lex specialis), eta salbuespena denez hertsiki eta zentzu mugatuan interpretatu beharrekoa. Gainera, tratatuko 4 (1) artikulua arabera, Erakunde bakoitzak tratatuak emandako aginteen mugetan barna jardungo du, eta horrela erakunde batek dituen aginpideak tratatuak emandakoak besterik ezin dute izan (testuinguruko argumentu sistemikoa). Gainera, beste hizkuntzetako bertsioak gonbaratzen badira ikusten da bertsio batzuek erabiltzen dituzten terminoak "ematearen" (attribution) ideiatik gertuago dabilta alegia danierazkoa ("som pa dette område er tillagt Kommissionen"), alemanezkoa ("der Zuständigkeit, welche die Kommission auf diesem Gebiet besitzt"), nederlandezkoa ("van de aan de Commissie te dezer zake toegekende bevoegdheden") eta ingelesezkoa ("the powers vested in the Commission in this field"). Amaitzeko, Erakunde baten praktika single bat ezin zaie tratatuko arauari nagusitu.

Europar Atomo Indarra Komunitate edo Euratom tratatuko 101 (3) artikulua dagokionez, Auzitegiak gogoratzen du bi tratatuak aldi berean negoziatu zirela eta artikulua horrek oso prozedura berezia aurreikusten duela. EEKko tratatuko 228 artikulua ezberdina bada, zerbaitegatik izango da (a contrario). Lehiaketaren zuzenbideango eskuduntza berezi buruzko

argumentuari Auzitegiak erantzuten dio eskuduntza horiek bereziak direla bai, baina Komunitate barnekoak direla eta ezin dutela tratatuak nazioarteko hitzarmenatarako aurreikusitako eskuduntzen banaketa aldatu. Beste hitzetan esanda, erakundeen eskuduntzen inguruan ezin da paralelismorik egin barruko eskuduntzen eta kanpokoan artean (6).

Beraz Batzordeak ez zeukan eskuduntzarik hitzarmena izenpetzeko eta bere izenpetze aktoa deuseztatzen da, auziko kostuak ordaintzera ere kondenatzen delarik.

V. Iruzkina kritikoak

Epai honen inguruan gauza asko esan daiteke. Saiatuko naiz iruzkinak ordenatzen. Alde batetik nazioarteko zuzenbideko arazo bat dago: zer da nazioarteko hitzarmena? Bestalde, hitzarmenaren azterketa bera dago. Gero errekursoaren zergatia azaldu behar da eta Auzitegiaren esku ezkerre errekurtsioa birformulatzean. Frantziaren argumentuak eta Batzordearenak ere komentagarri iruditzen zaizkit. Amaitzeko, interpretazio doktrina ere diseinatu egiten du Auzitegiak.

Nazioarteko zuzenbidean oso izaki eztabaidatua izan da executive agreement delakoa. Ortodoxiak dio nazioarte mailan burutzen diren hitzarmen guztiak "nazioarteko hitzarmenak" direla Vienako Itunaren zentzuan, horietan alderdiak Estatuak edota nazioarteko erakundeak dira eta konpromiso ezberdinak hartzen dituzte, kontratuetan bezala. Baina estatu gehienek konstituzioek halako nazioarteko hitzarmenatarako formazko prozedura konplikatu eta geldoa eskatzen dute: gobernuak negoziatu, parlamentuari informazioa eman, parlamentuak onartu egin behar du, eta azkenik aldizkari ofizialetan argitaratu barruko zuzenbidea eginez. Prozedura konplexu hori ebitatu nahiz edo, estatu batzuk administrazioen arteko lan—edo elkarlan—akordioak asmatu dituzte eta praktikan jarri (executive agreement). Hauek efikazak izan daitezke, eta zenbait eremutan hitzarmen formalak baino praktikoaagoak, baina hauekiko kontrola oso zaila egiten da, Parlamentuari izuri egiten zaiolako. Estatuarteko praktika eta nazioarteko zuzenbidearen dogma ez daude beti uztarturik.

Eztabaida daiteke ezbaiko hitzarmena berez administratiboa den ala ez. baina garbi dago bere gaia nahiko garrantzitsua dela. Egia da azken finean aplikazioari buruzko hitzarmena dela eta zentzu horretan ez dela zuzenbide berria egiteko edo zaharra aldatzeko konpromisorik hartzen:

(6) Hemen ez dago ERTA edo AETR epaiarekiko kontraesanik. Gogoratu afera horretan jokoan zegoena ez zela Komunitateko erakundeen arteko eskuduntzen banaketa baizik eta Komunitate beraren eta Estatu partaideen arteko eskuduntza banaketa, eta bertan emandako irizpidea hauxe izan zen: behin Komunitateak barne-eskuduntza daukan orduan kanpoko eskuduntza ere baduela. Aldiz, afera honetan Komunitatearen eskuduntza ez da kuestionatzen. Nahiz eta espreski ez aipatu, AETRrekiko bereizketa-teknika erabiltzen da hemen (distinguishing), prezedenteari garrantzia ematen zaioten sistemetan egiten den bezalatsu.

indarreango zuzenbidea ez da ezertarako ukitzen. Nazioarteko hitzarmen klasikoetan aldiz zuzenbidezko aldaketak ekartzen dira sarri. Baina bestalde, comity arautzen duen hitzarmena beti izanen da delikatu, beste alderdien interes garrantzitsuak kontutan hartu behar izatea norberaren zuzenbidea ez aplikatzera edo era berezi batean aplikatzera eraman dezakelako eta exekutiboaren diskrezioa esparru horretan itzela delako, eta hori kontrol politikorik gabe hitzarmenaren bidez onestea larria dateke.

Frantziak, dirudienez, hitzarmena bera erasotu nahi zuen. Estatu horrek ekarritako zioek horrela erakusten baitigute: ez bakarrik Batzordeak eskuduntzarik ez zeukala, baita ere hitzarmenak berak lehiaketaren zuzenbidearen aurka jo eta segurtasun juridikoa hausten zuela. Batzordeak noski hitzarmena defenditu nahi zuen emaitza onak ematen ari zelako. Zentzu honetan galde daiteke zergatik Kontseiluak ez duen errekurtsorik aurkeztu edo gutxienez Frantziaren alde azaldu edo zergatik Parlamentuak ere muzin egin dion Frantziako errekurtsuari. Azken finean Kontseiluaren prerogativak (hitzarmena izenpetzekoa) zeuden jokoan, eta teoriarik baita Parlamentuarenak ere (kontsultatuta izateko). Behar bada hitzarmenari egokia deritzote. Auskalo. Batzordeak pot egin du hitzarmenak ondorio juridikoak zituela esatean. Egia esan, Batzordeak hori onartu zuen hitzarmena juridikoki kontrolgarria dela baietsiz, baina konturatu gabe Frantziari argumentu arriskutsua hornitu egin dio: hitzarmenak ondorio edo eragin juridikoak dituenaz nazioarteko hitzarmen arrunta da. Auzitegiak maisuki mugatu du errekurtsua: ez du hitzarmena juridikoki aztertu behar, eta beraz hitzarmena bera baliozkoa dateke, baina kontrolatzen duena da hitzarmena izenpetzeko Batzordeak hartu zuen erabakia, eztabaida osoa Batzordearen eskuduntzaren inguruan kokatuz.

Funtzionatu zuen bitartean oso emaitza onak eman zituen hitzarmenak: Batzordeak EBei 61 notifikazio bidali zizkion, eta horietatik 45 enpresen bateratzeak ziren, eta EBek Batzordeari 112 notifikazio bidali zizkion, horietatik 77 enpresen bateratzeak ziren. Izan ere Batzordeak beste hitzarmen berri bat prestatu du jadanik Kontseiluarekin batera burutzeko (Kontseiluak EKko alderdiari dagokionean, Batzordeak EIAKko lehiaketa zuzenbidean ahalmena baitauka halako hitzarmena burutzeko (7)). Hitzarmen berriak Estatu Kideen lankidetzara aurreikusten du hein handiagoan. Aldi berean Batzordeak Kontseiluari baimena eskatu dio Kanadarekin antzeko hitzarmena burutzeko (8).

(7) Izan ere Auzitegiaren erabakia Batzordearen aginpidea Europar Ekonomia Komunitateko Tratatuaren arabera aztertzerik mugatu da, beste Tratatuaren arabera aginpidea aztertu gabe. Batzordearen nazioarteko hitzarmenak burutzeko aginpidea Europako Itaketa eta Altzairuaren Komunitateko Tratatuaren arabera zabala baita.

(8) Agence EUROPE, 1994-10-13, 4. orr.).

Interpretazio doktrinari buruz esan daiteke, oso gutxitan agertzen dela tratatuko hizkuntzazko bertsio ezberdinen gonbaraketa terminologikoa. Hau dugu salbuespen interesgarria, batez ere bertsio frantsesaren zentzua ez delako nagusitu (9). Interpretazio sistemikoa nagusitzen da afera honetan: 228 artikulua izatera konstituzionala, 4. artikulua erabilera, lex specialisaren inguruko teoria, analogiaren erabilpen mugatua, etab. Interpretazio dinamikorik — helburuzkoa, ondoriozkoa edo efikaziazkoa — ez dago, eta hori ere aipagarri da.

2. Webb afera (C-32/93; 1994.ko Auzitegiko Bilduma, I-3567 orr.)

I. Sarrera

Sexuagatiko tratu ezberdina jasotzea ez da problema berririk. Praktikan, eta enpresa pribatuan badirudi oraindik orain emakumezkoen aurkako bereizkeria gertatzen dela. Zuzenbideak zerbait egin dezake bereizkeria kontrolatzeko, baina aurreiritziak aldatzea ez da horren erraza. Gainera arazo jakin batzuen inguruan tratu berdintasuna lortzea zaila egiten da berdintasun hori errealitatean ezinezkoa denean. Arazo horietako bat amatasuna da. Arazo horretan gizonetzkoak eta emakumezkoak ez dira berdin. Amatasunagatik baja hartzen dute emakumezko langileek. Enpresei bajak ez zaizkio inoiz interesatzen noski, zenbait kasutan hutsunea betetzera behartuta gelditzen direlarik, beste langile berri bat kontratatuz. Zuzenbideak, esan bezala, ezin ditu jarrera horiek aldatu, baina gutxienez ziurta dezake enpresak ezin izango duela langile bat lanetik kanporatu edo kaleratu amatasun baja hartu izanagatik. Zuzenbide komunitarioa, zentzu honetan gutxieneko irizpide amankomunak lortzen saiatu da, eta horrek Estatu kide askori aurrerapauso handiak ematea suposatu dio.

Tratatuko 119 artikulua Estatu kidei obligazioa ezartzen die lan berdinean lanari edo soldata berdina ziurta diezaieten emakumezkoen eta gizonetzkoen. Nahiz eta lansariak aritu, artikulua honen atzetik printzipio orokorra dago: sexuagatik bereizkeririk ezaren printzipioa hain zuzen ere. Printzipio horretan oinarrituz lanerlazioa edo enpleguarekin zerikusirik duten alderdi ezberdinak estaltzen joan dira direktiben bitartez, geroxeago ikusiko dugun bezala. Dakigunez, direktibak Estatu kideen zuzenbidera itzuli egin behar dira gutxieneko amankomuna bermatu ahal izateko. Direktiba itzultzen duen zuzenbidea (izan daiteke lege berri bat, edo araudi bat, edo lege zahar baten artikulua berria, edo arau multzo bat, etab.) direktibaren arabera interpretatu

(9) Nahiz eta bederatzi bertsioak ofizialak izan eta berdinean balio duten, ez da ahanzi behar frantsesa zela hiru jatorriko estatuaren hizkuntza ofiziala, negoziazioetan frantsesak leku berezia hartu zuela, erakundeen arteko auziak normalean frantses eztabaidatzen direla eta Auzitegiaren lan hizkuntza frantsesa dela.

behar da, eta zalantza baten aurrean hortxe dago Europar Komunitateen Justizia Auzitegia. Afera honetan planteatzen den problema erlazio dialektikoan dago bi eskakizunen artean: zuzenbideak ziurtatu nahi du amatasuna baja hartzeagatik ez dela langile haurdun baten aurka diskriminatuko, eta enpresek ahalik eta diru gutxien edo zama sozial gutxien ordaindu nahi dute dirurik ez galtzearren.

II. Aferaren gorabeherak

EMO Air Cargo (UK) Ltd enpresak hegazkin garraioan dihardu hamasei langilerekin, horietako lau inportazio eragiketetan. Webb anderea inportazio eragiketen laguntzaile bezala kontratatu zuen hiru hilabeteko proba epearekin. Lan elkarrizketan Webb andereari argi esan zitzaion lanpostu hori libre geldituko zela beste inportazio eragiketen laguntzailea, Stewart anderea haurdun zegoelako eta urtearen amaiera arte lan egiten jarraituko bazuen ere, ondoren amatasun baimena hartu behar zuen eta enpresak ez zuen ordura arte itxadon nahi bera ordezkatzeko. Webb andereak orduan sei hilabeteko prestakuntza epea izango zuen Stewart anderearen eskutik. Baina Webb anderearen kontratua eperik gabekoa zen zeren eta Stewart anderea lanera itzultzeak ez zuen suposatzen Webb anderearen kaleratzea. Izan ere aurreikusita zegoen Stewart anderea itzultzean Webb andereak lanean jarraituko zuela.

Lanean hasi eta bi astetara Webb anderea ohartu zen bera ere haurdun egon zitekeela eta horixe jakinarazi zion EMOKo zuzendariari. Honek erantzun zion kasu horretan beste irtenbiderik ez zitzaiola geldituko kaleratzea baizik. Astebete beranduago Webb anderearen emaldura baieztatzen da. Segituan Enpresak kaleratzen du esanez kaleratzen duela beste langile haurduna ordezkatzeko kontratatua izan zelako eta ordura arte ez zuelako esan bera ere haurdun zegoela. Frogatutzat jotzen da Webb andereak ez zekiela kontratua izenpetu zuen garaian jadanik hardun zegoela.

Webb andereak kaleratze horren aurkako errekurtsioa aurkeztu zuen Industrial Tribunalen aurrean, sexuagatiko bereizkeri zuzena salatuz, eta hori ezean zeharkako bereizkeria (10). Industrial Tribunalak erabaki zuen ez zela sexuagatiko bereizkeririk gertatu. Webb anderea kaleratua izateko arrazoia bestelakoa zen: Stewart anderea baimenean egon bitartean ordezkatu eta beraz kontratatua izan zen eginbeharra betetzeko ez zela gai izango. Beraz kaleratzearen arrazoia lan kontratuaren zeregina betetzeko gaitasunik eza da. Stewart ordezkatzeko gizonezko bat kontratatua izan balitz eta horrek kontratualdian baimena berezia eskatuko balu, kaleratua zatekeen baita ere Tribunalak erabaki zuen zeharkako bereizkeririk ere ez zela egon: agian

(10) Bereizkeri zuzena gertatzen da lanpostu berdinean emakumezko batek eta gizonezko batek tratatu ezberdina jasotzen dutenean. Zeharkako bereizkeria gertatzen da egoera kaltegarri batean objektiboki gizonezko baino emakumezko gehiago aurkitzen denean (edo alderantziz, teoriarik bederen).

zeregin hori betetzeko gizona baina emakumezko gehiagok eduki zezakeen gaitasunik eza, baina enpresariak garbi erakutsi zuen bere enpresak berehala prest (disponible) legokeen langilea behar zuela Stewart anderea ordezkatzeko.

Erabaki horren aurkako helegitea ezarri zuen Webb andereak, lehenik Employment Appeal Tribunalari eta gero Court of Appealari, baina denak alperrik. Azkenean helegitea House of Lords-i aurkeztu zion. Bi balore zeuden lehia: alde batetik ezinezkoa da haurdun dagoen langilea kaleratzea, bestaldetik langile hau kontratatzeke arrazoiak ere kontutan hartzekeoak dira.

III. Gaiaren inguruko zuzenbide britainiarra eta komunitarioa eta House of Lords-en epai-aurreko galdaketa

Britania Handiko eta Ipar Irlandako Erresuma Batuan 1975ko Sex Discrimination Act dago indarrean, bereizkeria debekatzen duena. Bere lehen artikulua arabera emakumezko baten aurka diskriminatzen da bera baldintza berdinetan sexuagatik gizona bat baino okerrago (less favourable treatment) tratatzen denean (edo alderantziz, gizona diskriminatzen da emakumezkoari alderagoko tratua ematen zaionean), baina emakumezkoari emaldura edo erditzeagatik ematen zaien tratua berezia ez da kontutan hartzen tratua ezberdintasun hori aztertzerakoan.

Komunitatean 76/207 direktiba egin zen, enpleguan, formakuntzan, promozioan eta lan baldintzetan emakumezko eta gizona arteko tratua berdintasuna printzipioaren gauzatzeari buruzkoa (Aldizkari Ofiziala 1976 L 39, 40). Honen helburua sexuagatik bereizkeria (11) bazterzea da, emakumezkoari eta gizona arteko lan baldintza berdinak ziurtatuz. 5 artikulua arabera lan baldintzetan kaleratze baldintzak sartzen dira. Horretarako Estatu kidei direktiban ziurtatzen diren eskubideak bermatzeko eta ezartzen diren debekuak jartzeko exijitzen die.

House of Lords lege britainiarra direktiba horren eskakizunen arabera interpretatu beharraz jakitun da (Marleasing deituriko jurisprudentziaren ildotik), eta hain zuzen ere interpretazio hori burutzean zalantzak dituelako Auzitegiari galdetzea erabaki du (12). Hona hemen galdera:

"lan emale batek langile bat lanetik kanpora edo kaleratzea, ondoren zehaztuko diren baldintzetan, 76/207 direktibaren aurkako sexuagatik bereizkerizat joan daiteke, alegia (a) lan

(11) bereizkeri zuzena sexuari erreferentzia eginez edo bereizkeri zeharkakoa adibidez ezkontz-edo familia-egoeraren aipu eginez (2. artikulua).

(12) Galdera egin zuen garaian 92/85/CEE direktiba ez zen exijigarri; direktiba hori lantegian langile haurdun, amatu berri edo bularremaleen osasuna eta segurtasuna hobetzeko neurri bultzatzailei buruzkoa da (AO 1992 L 348, 1 h.). Bere 10 artikulua ama-langileen kaleratzea debekatzen du, haurdun gelditzen diren amatasun baimena edo baja bukatzen den arte; baina direktiba estatupartaideen barruko zuzenbidera itzultzeko epea 1994-10-19ra arte ez zen amaitzen.

emaileak langilea kontratatu duela prestakuntza denboraldi baten ondoren beste langile bat ordezkatzeko, azken honen amatasuna baja bitartean langile berriak lanean jardungo duelakoan, (b) lan emaileak ordezeko langilea kontratatu eta oso denbora gutxira jakiten duela langile hura ere haurdun dagoela eta beste langilea ordezkatu orduko amatasuna bajarekin denbora berean jarriko dela, (3) lan emaileak ez lukeela langilea kontratatu izango haurdun zegoela jakin izan balu, eta (4) lan emaileak berdin kaleratuko lukeela gizonezko langile bat, beste langile bat baja bitartean ordezkatu beharrean berak ere sendakuntza edo bestelako arrazoiengatik baja eskatu behar izango balu»

IV. Auzitegiaren erabakia

Auzitegiak bere erabakiaren alde bi iturri nagusi konbinatzen ditu: 76/207 direktibaren inguruko bere jurisprudentzia eta 92/85 direktiba, epaia honen egunean oraindik Estatu kidei exijigarri ez dena. Bere jurisprudentzia ezarria gogoratzen du, planteatu zaion arazoa testuinguru jakin batean kokatuz, alegia tratamendu juridiko berezia eskatzen duten amatasunaren ezaugarrien eta 92/85 direktibaren zergatiaren eta helburuaren testuinguruan. Ikus ditzagun bi iturri hauetatik Auzitegiak aterako dituen arauak.

A. Auzitegiak bere aurreko Jurisprudentzia (13) laburbiltzen du bi ideia nagusi eratorriz: (1) emakumezko langilea ernalduragatik kaleratzea sexuaren araberako bereizkeria da, xehatu gabeko luzapena duen lan kontratua amatasunagatik apurtzea ez dago bidezkotzerik langilea, denboraldi mugatu batean, kontratatu den lana egiteko gai izango ez delako arrazoia emanez; bestalde (2) direktibak amatasuna bi alditan babesten ditu; bata, emakumearen osasuna edo ongizate biologikoa, ernaldian zehar, eta bestea, erditu ondoren, amaren eta bere haurraren arteko harreman berezia. Ernaldura ez da egoera patologikotzat jo behar, ezin delako inolaz ere gaixotasunarekin parekatu, ezta gaixotasuna ernaldura beraren ondorioa denean ere, eta arrazoi handiagoz, ernaldia, amatasuna fenomeno guztiz berezia da, ezin da gonbaratu beste inolako arrazoiengan oinarrituriko lanegin ezinarekin (indisponibilitate d'origine non medicale, 24-25 puntuak).

B. 92/85 direktibari dagokionez, Auzitegiak azaltzen du horren helburua emakumeari babes berezia ematea dela, ernaldian zehar eta amatasuna— baimena edo baja amaitu arte kaleratzea erabat debekatuz, (10. artikuluan) ezbaiko afera honekin zerikusirik ez duten salbuespenak salbu. Direktibak kontutan hartu izan du kaleratzeak langile haurdun, amatu berri edo bularremaleen egoera fisiko eta psikikoaren gain suposa ditzakeen arriskuak, eta bereziki

(13) Hofmann afera (184/83, 1984ko bilduma 3047 orr.), Hertz afera (Handelsog Kontorfunktionarernes Forbund i Danmark, C-179/88, 1990ko bilduma, I-3979 orr.), eta Habermann-Beltermann afera (C-421/2, 1994ko bilduma 1-1657 orr.).

langileak ernaldia bere borondatez etentzera bultzatzearen arriskua. Auzitegiak garbi esaten du direktiba berri honen argipean interpretatu behar dela 76/207 direktiba.

Bi iturri hauetatik darion zuzenbidea gogoratzearekin batera, ezbaiko aferaren erantzunari ekin dio Auzitegiak. Amatasuna babesa osoa eskatzen duen egoera da, egoera horrek sexuagatiko bereizkeria gertatzeko arrisku handiak sortzen ditu eta. Ezin da onartu xehatugabeko denboraldirako kontratatutako langile haurduna kaleratzea argudiatuz honek zenbait betekizun ezin izango dituela bete. Egia da lanemaileari guztiz beharrezkoa zaiola langilearen presentzia lanean eta bere langileak oro lanerako prest egotea, bestela lan kontratuak ez luke funtzionatuko. Baina zuzenbide komunitarioak, ernaldian zehar eta erditu ondoren, amalangileari ematen dion babesa ez zaio arazo horri lotu behar, alegia ea amatasuna-baja bitartean langile horren presentzia ezinbestekoa zaion emakume hori kontratatuta dagoen enpresaren funtzionamenduari (26. puntua). Bestelako interpretazio batek direktibaren xedapenak eraginik gabe utziko litzuzke (effet utile). Ezbaiko afera honetan beste elementu bat dago. Kontratatu den langilea, segituan amatasuna baja eskatu behar duena, hasiera batean, amatasuna baja eskatu behar duen beste langile bat ordezkatzeko kontratatu da. Baina elementu honek ez du ezertarako aldatzen zuzenbide komunitarioak exijitzen duen amatasunaren babesa (28 puntua). Nahiz eta ordezko langile hori enpresari funtsezkoa izan, luzapena jakinik gabeko lan kontratua ez dago amatasunagatik inolaz ere apurterik (26-28 puntuak).

V. Iruzkina

Oso interesgarria da Auzitegiak 92/85 direktiba erabiltzen duen modua, interpretazioaren lagungarri. Direktiba horrek Auzitegiaren jurisprudentzia baieztatzen du. Jurisprudentzia horrek 76/207 direktiba interpretatzen du printzipio orokor bat eratorriz: amatasunaren babesa berezia. Garbi esaten da amatasuna ezin dela inolaz ere gaixotasunarekin parekatu (25. puntuan: "l'état de grossesse n'est aucunement assimilable a un état pathologique"), aurreko jurisprudentziaren nahastearen bat argituz (14).

Bestalde, interesgarria izan daiteke Auzitegiak erabiltzen duen jurisprudentzia gogoratzea. Hofmann aferan direktibaren 2. artikulua zegoen jokoan. Artikulu honek estatuei baimentzen die amatasunagatik babesa berezia emateko. Alemanian ama langile batek haurra eduki zuen, eta lege alemanak ematen duen zortzi asteko derrigorrezko amatasuna-baimena agortu ondoren lanera itzuli zen. Haurraren aita, Hofmann jauna ere lanean zegoen, baina hau haurraren

(14) ikus Dekker aferan, C-177/88, 1990ko bilduma, 1-3941 orr., 13. puntuan obiter esaten dena: "la circonstance que la grossesse soit assimilée, a la maladie...".

amarekin ados jarri zen haurraz arduratzeko sei hilabetez. Lege alemanak beste baimen berezia aurreikusten du, haurrak seigarren hilabetea bete arte: amak eskatu behar du derrigorrezko baimena agortu baino lau aste lehenago, eta haurra jaió baino lehenago bederatzi hilabete lehenagotik lanean egon behar du amak. Enpresariak ezin du lan erlazioa hautsi baimena hori eta bi hilabete pasa arte. Lansaria gordetzeaz gain eguneko 25 marko ematen zaio amari. Hofmann jaunak baimena berezi hori jasotzeko eskatzen zuen, bera haurra zaintzen ari zelako, eta amarekin ados jarri zelako. Gizarte arazotarako auzitegi alemanak Justizia Auzitegiari galdetu zion ea 76/207 direktibaren arabera Estatu batek posible al zuen halako baimenak amarentzako bakarrik aurreikustea, aitari ukatuz. Auzitegiaren arrapostua izan zen direktibaren 2. artikulua babesa bikoitza lortu nahi zuela: amaren osasunarena, ernaldian zehar, eta amaren eta haurraren arteko erlazioarena haurraren lehenengo hilabetetan, ama lehenbaitlehen eta goizegi lanera itzultzeko presio jasa ezinengatik askatu asmoz. Beraz neurri alemana ez zihuan direktibaren 2 (3) artikuluaen aurka, eta gainera direktibak Estatu kidei diskrezio eremua ezagutzen die beharrezko neurri sozialak hartzeko.

Hertz aferan beste galdera interesgarria sortzen da. Hertz andereak erditu ondorengo osasun zailtasunak eduki zituen zenbait urtetan. Hauen ondorioz gaixotasun baimena asko hartu behar izan zituen eta bere enpresak, Aldi supermerkatuak, kaleratu egin zuen. Hertz andreak sexuagatiko bereizkeria alegatu zuen kaleratzearen aurka. Zentzu batean, zeharkako bereizkeria ematen zen zeren eta bere gaixotasuna ernaldiaren eta erditzearen ondorengoa zenez, gizonezkoek ezin zuten horrelako zailtasunak eduki eta beraz emakume gehiago aurki zitezkeen egoera horretan gizonak baino. Baina Auzitegiak esan zuen kasu horretan Hertz ez zela kaleratua izan amatasunagatik, hori argi debekatzen du direktibak, baizik eta gaixotasunaren kariaz lanetik baja asko hartu izanagatik, gizonezko bat izan balitz, berdin gertatuko litzaiokeelarik.

Habermann-Beltermann afera ere korapilatsua da. Aleman legeak emakume haurdunen gaueko lana debekatzen du. Habermann-Beltermann andrea kontratatua izan zen pertsona edadetsuen egoitza batean zaindari lana egiteko gauez. Kontratatua izan zen garaian berak ez zekien haurdun zegoela. Lege alemanaren debekua aipatuz, bere lan-emaileak lan kontratua

deuseztu egin zuen. Lan auzitegiak galdetzen du ea lege alemanaren debeku hori direktibarekin bat datorren ala ez. Hala erantzuten dio, funtsean, Justizia Auzitegiak: egia da direktibak Estatu kidei diskrezio eremu bat arrezagutzen diela haurdun diren edo erditu berri duten amak babestearren beharrezko gizarte neurriak har ditzaten. Baina afera honetan xehatugabeko luzapenek lan kontratuaz ari gara eta beraz, printzipioz, gaueko lanaren debekua lan kontratuaren denboraldi mugatu batean aplikatzen da bakarrik. Egoera horretan emakume langilea haurdun dagoelako lan kontratua deuseztatzea direktibaren 2. artikulua lortu nahi duen babesaren aurkakoa litzateke, xedapen hori eraginik gabe utziz (effet utile).

Webb epaiaren erakarpenik nagusia, ene ustez 26. puntuan dago, non Auzitegiak amatasunaren babesaren printzipioa salbuespenik gabeko ius cogens arauaren statusera igotzen duen, derrigorrezko zuzenbidea bilakatuz. Amatasunaren babesa inposatu egiten da eta kitto. Ez dago salbuespenik, ezta afera bateko zehaztasunak nahiko korapilatsuak direnean ere, oraingo asuntuan bezala: amatasuna baimena hartu behar duen langilea ordezkatzeko kontratatzen den ordezkoak ere amatasuna baimena hartu behar du.

Behin eta berriz errepikatzen du Auzitegiak afera honetan luzapen jakinik gabeko lan kontratuaz ari dela (contrat sans determinaron de duree) (15). Habermann-Beltermann aferan bezalatsu. Kontratatu diren langileak ez dira epe jakin baterako kontratatu. Webb aferan ere horrela da, nahiz eta hasieran ordezkapena egin behar den. Ez dakigu zernolako erabakia hartuko lukeen kontratu hori ordezkapenezko lan kontratu soila izan balitz, luzapen mugatuarekin, baina bereizketa hori inpliziturik egiten du Auzitegiak eta badirudi garrantzi handiko bereizketa dela, Abokatu Orokorrek ere egiten duena (16).

Nabardura hau alboan utzirik esan daiteke ius cogens printzipio honek berdinean funtzionatu behar duela Estatu kideen zuzenbideetan, beharrezkotasunaz. Honek erakusten du, zuzenbide komunitarioak daukan potentzuala, Estatu kideetako zuzenbidea eraldatzeko. Britainia Handia bezalako estatuetan nahiko ondorio interesgarria da hau. Epaiarekiko kritika batzuk hasiak dira entzuten Estatu horretan, enpresariei hainbat dirua suposatuko dielako debeku honek. House of Lordsek afera nola erabakiko duen jakitearen zain gelditzen gara.

3. Faccini Dori afera (C-91/92; 1994.ko Auzitegiko Bilduma, I-3325 orr.)

I. Sarrera

Faccini Dori nahiko afera interesgarria da gertakariei begiratuz gero, baina seguru aski afera hau ez da horregatik inoiz ospetsua izango. Izan ere afera honek beste urrats berria ematen du direktiben zuzenbidean, eta beraz zuzenbide komunitarioaren nagusitasunaz eta eragintasun zuzenaz. Ez du jende askok espero zezakeen urratsa eman,

Abokatu Orokor zenbaiten

(15) Hain zuzen ere paragrafo hauetan: 3an, 16an puntu bakarria izaki: "Il ressort du dossier que la question prejudicielle se rapporte a un contrat de travail conclu sans Mmitation de duree", 26an, 27an. 29an eta xedatzailean.

(16) 10. puntuan, baina indar gutxiagorekin.

aburuaren aurka, baina gutxienez aurreko jurisprudentzia berretsi eta zabaldu ere egin du. Aldizkari honen 37. zenbakirako idatzitako kronikan, Marshall II afera komentatzen nuenean (222-3 orrialdean), aurreratu nuen Faccini Dori afera hau aukera berezia izanen zela eragin horizontal zuzena onartzeko, Abokatu Orokorrak nahi zuen bezala.

II. Aferaren gorabeherak

Paola Faccini Dori anderenoa Monzan bizi da. 1989ko urtarrilaren 19an Milango trengeltoki nagusian banku batean eserita trenaren zain zegoen eta bat batean gizon bat hurbildu zitzaion berarekin hitzegiteko asmoz. Hizkuntzak, ingelesa batez ere ezagutzearen garrantziaz mintzo zitzaion eta azkenean ingeleseko korrespondentziatzako ikastaro-metodo baten eskaera sinatzera konbentzitu zuen. Gizonak Interdiffusion Srl konpainiarentzako egiten zuen lana eta Faccini Dori anderenoak metodoaren eskaera sinatu zuen geltokian, alegia konpainiaren bulegotik at.

Egun batzuk beranduago, hilabete bereko 23.eko gutun ziurtatuaz Faccini Dori anderenoak Interdiffusion Srl konpainiari jakin erazi zion bere eskaera deuseztatzen zuela. Orduan Interdiffusion konpainiak 1989ko ekainaren 3an erantzun zion eskaera-orria beste konpainia bati pasa egin ziola Recreb Sr-ri hain zuzen ere. Ekainaren 24an Faccini Dori anderenoak Recrebi berretsi zion kontratua edo eskaera deuseztatu egiten zuela, metodoa ez zitzaiolako interesatzen. Eskaera hori deuseztatzeko eskubidearen alde 85/577 direktiba inbokatzen zuen. Honek denda edo merkatal-establezimendutatik at negoziaturiko kontratuak deuseztatzeko aukera ematen du. 1989ko ekainaren 30an Recreb-ek Firenzeko Giudice Conciliatore-ari eskatu zion Faccini Dori anderenoari agindu ziezaion hitzartutako diru kopurua, gehi interesak gehi kostak ordaintzeko.

Giudice Conciliatoreak, 1989ko azaroaren 20ko aginduaz, Faccini Dori anderenoa kondenatu zuen diru kopuru hori ordaintzeko. Honek agindu honen aurkako akzioa ekarri zuen epaile berdinen aurrean, esanez berak direktibak aurreikusitako baldintzatan deuseztatu egin zuela kontratua.

85/577 direktibaren helburua kontsumitzaileen babesa da, gai honen inguruan Estatu kideetan dauden legezko ezberdintasunak desagertaraziz. Ezberdintasun horiek noski merkatu amankomuna traba dezakete. Kontsumitzaileak Estatu batean gehiago edo neurri gogorragoekin babesten badira, saltzaileek zailtasun gehiago edukiko dute edo erantzukizun handiagoa salmentaren aurrean, eta nahiago izango dute salmenta eragiketak babesa gutxiago dauden Estatuetan egin. Horren ondorioz babesaren inguruko legezko ezberdintasunak salgaien trukearekiko oztopo bilakatzen dira.

Direktibaren laugarren zioak azaltzen du merkataria denda, bulego, edo merkatal establezimenduetatik at burututako kontratuen kasuetan saiatzeko inizatiba merkatariena izaten dela kontsumitzailea negoziatzeko prest egon gabe, eta azken hau beraz nolabait gutxiagoturik

aurkitzen dela. Kasu gehienetan kontsumitzaileak ezin du gonbaratu une horretan eskaintzen zaien salneurria edo kalitatea beste eskaintza batzuen salneurri eta kalitatearekin. Sorpresazko elementu hau merkatariak bere establezimendutik kanpora inizatiba hartzen duen kontratu mota guztietan agertzen da. Direktibaren helburua beraz kontsumitzailea kasu horietan babestea da (bosgarren zioa) kontratua deuseztatzeko edo kontratuan uko egiteko eskubidea emanez, gutxienez kontratua burutu eta zazpi egunetara, kontsumitzailea kontratutik jarraitzen diren obligazioetaz behar bezala jabe dadila.

Direktiba Estatu kideen zuzenbidetara itzultzeko epea 1987ko abenduaren 23an amaitzen zen. Gertakariak gertatu zirenean Italiak ez zuen direktiba hau bere zuzenbidetara inolaz ere ekarri, ez zuen inolako neurririk hartu, direktibak aurreikusitakoa betertzeko edo italiar zuzenbidean ere xedatzeko. 1992ko urtarrilaren 15a arte ez zuen inolako neurririk hartu (decreto legislativo n.º 50, GURI, n.º 27ren gehigarria, 1992.2.3koa, 24, urte bereko martxoaren 3an indarrean sartzen zena).

Giudice Conciliatorek galdetzen du ea, nahiz eta Italiak direktiba hori zuzenbideaz bereganatu ez, berak direktibaren xedapenak aplikatu zitzakeen. Honelako galdera egiten du:

"Nahiko zehatz eta zehaztatutzat jo behar al da 85/577 direktiba, eta baiezkoan ba al da pribatuaren eta Estatu italiarraren arteko edo pribatuaren arteko erlazioetan eraginak sortzeko gauza direktiba hori Estatu kideetako zuzenbidetara itzuli edo bereganatzeko epea amaitu zen unetik?"

Bi galdera batean daukagu afera honetan. Lehenak direktibaren Interpretazio azterketa eskatzen du, bertan agertzen diren xedapenak behar bezain argi, zehatz eta erabatekoak—baldintza edo salbuespenik gabekoak— diren erabakiz. Direktibaren artikulua banaka hartu eta aztertu behar dira, ea aurreikusten diren eskubide eta obligazioak zehatzak ote diren ikusiz Bigarrenak direktiben eragintasun horizontal zuzenari buruz galdetzen du, eta hori erantzuteko zuzenbide komunitarioaren doktrina edo dogmatika arakatu behar da.

Aldez aurretik esan beharra dago Auzitegiaren doktrinaren arabera, zuzenbide komunitarioko arau batek ondorio juridikoak eragin dezan eta aplikagarri izan dadila, beharrezkoa dela arau hori aurkitzen den xedapena nahiko argia, zehatza eta salbuespen edo baldintzarik gabekoa izatea. Arau batzuek garapena behar dute, beste arauen eskutik. Beste batzuek baldintzazkoak dira, beste batzuek diskrezio eremu bat uzten dute beste araugile batek osa dezan, eta azkenik beste batzuk anbiguo edo ilun xamarrik dira. Hauek guztiek ezin dute eragin juridikorik eduki eta ez dira epailearen aurrean inbokagarri. Jakina beti izanen dira interpretazioaren lagungarri eta hauek barruko zuzenbidetara itzultzeko epea amaitu denean Estatu erantzule dateke.

III. Direktibaren azterketa Auzitegiaren eskutik

Lehenengo galderari erantzunez, Auzitegiak direktibaren artikulua nagusien azterketari ekinen dio. Lehenengo artikulua dio direktiba salgaiak edo zerbitzuak eskaintzen dituen merkatariaren eta kontsumitzailearen artean egindako kontratuei aplikatzen zaiela, merkatariak bere bulego edo dendatik kanpo antolatutako bidai batean edo merkatariak kontsumitzaileari etxera edo lanera eskatu gabeko bisita egiten dionean.

Bigarren artikulua kontsumitzailea definitzen du. Pertsona fisikoa da, eta direktibaren zentzuan, erosketak egiten dituenean bere lanbidearekin zerikusirik ez duen ekintza burutzen ari da (beste hitzetan esanda, kontsumitzailea ez da erosle profesionala). Aldiz, merkataria pertsona fisikoa edo juridikoa da eta direktibaren araberrako eragiketa edo transakzioa egiten duenean bere ohizko lanbide ekintza burutzen ari da.

Auzitegiaren ustez xedapen hauek nahiko zehatzak dira obligazioen kideak, zordunak eta hartzekodunak nortzuk diren Estatuako epaileak jakin dezan. Ez da beste inolako garapen neurririk behar. Estatuako epaileak egin behar duen guztia da ziurtatzea ea kontratua direktibak aurreikusitako egoeran edo baldintzatan burutu den, eta ea direktibaren araberrako kontsumitzaile batek eta merkatari batek burutu duten. Halako egoeratan kontratua burutu duen kontsumitzailea babestearren, direktibaren laugarren artikulua dio merkatariak kontsumitzaileari idatziz jakinerazi behar diola kontratuari uko egiteko eskubidea duela, eta eskubide hori noren aurrean eta zein helbidean egitaratu dezakeen. Artikuluak ere dio merkatariak informazio hau kontsumitzaileari kontratua burutzen den une berean eman behar diola. Azkenik artikulua dio Estatu kideak arduratu behar direla beren legeek kontsumitzailearen aldeko beharrezko neurri babesleak aurreikus ditzaten kontratuari uko egiteko eskubidearen inguruko informazio hori ematen ez den kasuetarako.

Bostgarren artikulua xedatzen du kontsumitzaileak bere konpromisoaren eraginak deuseztatzeko eskubidea eduki behar duela, merkatariak bere eskubideetat informatu dionetik eta gutxienez zazpi egunen barman notifikazio bat bidaliz. Notifikazio horrek kontsumitzailea kontratutik jarraitzen den edozein obligaziotik askatu egiten du.

Egia da 4. eta 5. artikuluek Estatu kidei diskrezio eremu bat ezagutzen diela kontsumitzaileen babesari dagokionez, merkatariak kontratuari uko egiteari buruzko informazioa jakinarazten ez dionean, uko egiteko epeari dagokionez eta uko egiteko motei dagokionez (Estatuak zazpi egun baino gehiagoko notifikazio epea aurreikus dezakete). Baina honek ez du ezertan aldatzen afera honetan jokoan dauden xedapenen argitasuna eta erabatekotasuna. Diskrezio eremu horrek gutxienero muga batzuk baditu, halanola zazpi egunetako epea kontsumitzaileak merkatariaren eskutik informazioa-jasotzen duen unetik. Beraz direktibaren araberrera posible da gutxienero babesa zehaztea.

Xedapen hauek beraz nahiko argi, zehatz eta erabatekoak dira Auzitegiaren ustez. Esan nahi al du honek Faccini Dori anderenoak horietatik jarraitzen den eskubide argi, zehatz eta erabatekoa (kontratuari epe jakin batean uko egitearena) Giudice Conciliatore epailearen aurrean eta beste partikularren aurka, Recreben aurka, inboka dezakela?

IV. Direktiben Eragintasuna: erantzun posibleak

Galdera hau erantzuteko direktiben zuzenbideari buruzko oharra egin beharra dago. Hasi, tratatuarekin hasiko gara. Bere 189. artikulua dio:

"Kontseiluak eta Batzordeak, euren helburuak betetzeko, araudiak eta arteztarauak onartu eta erabakiak hartuko dituzte, aholkuak eman eta irizpenak eskaini, Itun honetan zehaztutako baldintzen arabera.

Araudiak balio orokorra izango du. Oso-osoan bete beharrekoa izango da eta zuzenean aplikatuko da Elkartekide bakoitzean.

Arteztarauak behartu egingo du Elkartekide hartzailea lortu beharreko emaitzari dagokionean; hala ere, estatu-agintarien esku utziko du modua eta baliabideak aukeratzea.

..."(17)

Beraz direktiba Estatu kidei zuzendurik dago. Estatuak ziurtatu behar dute direktibak lortu nahi duen emaitza Estatu horien zuzenbidean bermatzen dela, baina Estatuak aukeratuko dute zein den emaitza hori ziurtatzeko biderik onena. Lehenengo irakurketa batean badirudi direktibaren jasotzaile bakarrak Estatuak direla eta ez pertsonak. Estatuak ziurtatu behar dute direktibaren helburua lortzen dela eta horretarako neurriak hartuko dituzte. Diskrezioa daukate Estatuak egokitzat joko dituzten zuzenbide-neurriak (18) hartzeko baina beti ere direktibak lortu nahi duen emaitza ziurtatuz.

Printzipioz beraz direktibak aurreikusitako eskubide eta obligazioak Estatuetakoz zuzenbidera itzuliko dira, bertan gauzatuz, eta behar bezala itzultzen badira, hiritarrek eskubide horiek Estatuetakoz epaileen aurrean inboka ahal izango dituzte. Direktibak Estatu kidei epe bat emanen die direktibaren eskubide eta obligazioak beren zuzenbidera eramateko. Behin Estatu zuzenbideak direktiba bereganatu duen direktiba erabiliko da Estatu zuzenbide horren interpretazioa laguntzeko, baina besterik ez. Baina zer gertatzen da Estatu kide batek ez badu direktibak lortu nahi duen emaitza (eskubide eta obligazioak) emandako epean bere zuzenbidera itzultzen edo direktiba gaizki itzultzen badu? Zertan gelditzen dira hiritarrek

(17) HAAEren bertsioan. araudiak = erregelamenduak; arteztarauak = direktibak; Elkartekide – Estatu kide; Itun = Tratatu.

(18) Legezkoak, edo administratiboak.

direktibatik eratorri beharko lituzketen eskubide eta obligazioak? Horixe da eragintasun zuzenaren arazoa.

Eragintasun zuzenak esan nahi du direktibak, ondorio juridiko eragiteko, ez duela behar Estatu kidean zuzenbidezko garapen edo gauzatzerik, eta beraz partikularrek direktibetatik jarraitzen diren eskubideak beren harreman juridiko guztietan zuzenean eta beste ezer gabe epaileen aurrean inboka ditzaketela. Orain arte Auzitegiak direktiben eragintasun zuzenaren inguruan funtsezko bereizketa egin du: direktibetatik jarraitzen diren arau argi, zehatz eta erabatekoak Estatu kidearen aurka inbokagarri diren bitartean (eragintasun bertikal zuzena) beste partikularren aurka ordea, ez dira oraingoz inbokagarri (eragintasun horizontal zuzenik eza). Estatu kideak direktiben jasotzaileak nola diren ba posible da Estatu horien aurka bereganatu beharreko zuzenbidea inbokatzeari, baina nola direktibak ez zaizkie partikularrei zuzentzen ba ezin zaie direktiba horietatik jarraitzen diren obligaziorik exijitu, obligazio horiek barruko zuzenbidean gauzatu diren arte. Estatuak berak ezin du gauzatu gabeko direktibatik jarraitzen den obligazioa partikular baten aurka inbokatu, partikularra ez delako direktibaren jasotzailea (ikus Ratti, 148/78, 1979ko bilduma, 1629 eta Kolpinghuis Nijmegen afera, 80/86, 1987ko bilduma, 3969).

Esan beharra dago "estatuak" zentzu zabalean ulertzen dela edozein administrazio zein enpresa publiko edo estatuak kontrolatzen dituen enpresak ere estaliz (Foster v. British Gas jurisprudentzia, C-188/89, 1990ko bilduma 1-3313). Bestalde, nahiz eta direktiba bat barruko zuzenbidean gauzatu gabe egon, Auzitegiak esan du epailea saiatu egin behar dela bere estatuko zuzenbidea direktibaren argipean interpretatzen direktibak lortu nahi duen emaitza barruko zuzenbidetik lortzen gogor saiaturik (Marleasing jurisprudentzia, C106/89, 1990ko bilduma 1-4135, 8. puntua, honi eragintasun horizontal zeharkakoa esaten zaio batzutan). Gainera Estatuak ez badu direktiba bere zuzenbidean gauzatzen, eta horren ondorioz partikular batek kalteren bat jasotzen badu, direktibatik eratorritako den eskubide jakin eta xehagarri bat ezagutzen ez zaiolako, Estatuak direktiba gauzatu izan balu jasoko ez lukeen kaltea izanik, orduan partikularrek Estatu kidean exijitu diezaiokete kalteagatik indemnitza diezaioten (Francovich jurisprudentzia, C-6 et C-9/90, 1991ko bilduma I-5357). Eta hau direktibako xedapenak eragintasun zuzena edukitzeko hiru baldintzak betetzen ez duenean ere, Francovich kasuan gertatzen zen bezalatsu.

Paola Faccini Dori afera honetan aukera ezberdinak daude. Garbi dago Italiak ez duela direktiba italiar zuzenbidean garaiz gauzatu, baina garbi dago auzia ez dela partikular baten eta Estatuaren artekoa, baizik eta bi partikularren artekoa. Faccini Dori anderenoak ez du direktibatik eratorritako den eskubidea Italiar Estatuaren aurka inbokatu, baizik eta Recreb enpresaren aurka. Baina direktibatik eratorritako den eskubidea ez dago italiar zuzenbidean gauzatua, eta beraz eskubide juridiko bezala ez dago guztiz osatua. Egoera honetan zer egin?

Alde batetik epaile italiarra saia daiteke bere barruko zuzenbidea, kontratuei buruzkoa, direktibaren arabera interpretatzen, baina hori posible ez bada zer egin dezake? Garaia al da eragintasun horizontal zuzena onartzeko?

V. Abokatu Orokorraren aburua

Abokatu Orokorraren ustez bederen bai. Ondoko arrazoiak hornitzen ditu Lenz jaunak.

Eragin horizontala ez bada onartzen, eragin bertikala onartzen den bitartean bidezkoturik ez dagokeen bereizketa egingo da Estatuaren aurkako auziak dituzten partikularren eta beste partikularren aurkako auziak dituzten partikularren artean, eta bereizketa hori ez da zuzenbide komunitarioarekiko koherente, batez ere pentsatzen baldin bada posible izan daitekeela gauzatu— gabeko direktiba enpresa publikoaren aurka inbokatzea, baina ez hori baino handiago eta boteretsuagoa izan daitekeen enpresa pribatu baten aurka.

Gainera eragintasun horizontalak direktibaren helburua eta zergatia betetzen laguntzen du, armonizatzea benetan lortuz, behin epea amaiturik dagoen, ez delako itxadon behar Estatu batek direktiba hori gauzatu arte, eta beraz pertsona guztiek, Estatu kide ezberdinetako partikularrek gauzatzeko epea amaitzen den une beretik gutxieneko eskubide berberak edukiko dituzte, tratamendu ezberdinak eta beraz lehiaketarekin bat ez datozen baldintzak kenduz.

Direktiba honen kasuan eragintasun horizontala are ta beharrezkoagoa da, kontsumitzaileen babesa goi mailako printzipioaren statusera igo baita, Europar Batasuneko Tratatuak gehitutako Europar Komunitateko 3, s) artikulua garbi adierazten baitu merkatu batua lortzeko bidean Komunitatearen ekintza kontsumitzaileen babesa areagotzeari begira egongo dela.

Ondoren, Estatu kide batek direktiba ez gauzatzeak direktibari praktikotasuna kentzea suposatzen du. Hau noski, eragin bertikalarekin zer edo zer konpontzen da, baina hankamotz gelditzen da oraindik direktibari ez ba zaio eragintasun horizontala ematen. Zalantzarik ez, direktibak bere eragin posible guztia edukitzeko, behar beharrezkoa dela Estatuak bere zuzenbidera itzuli eta gauzatzea, baina Estatuak ez badu hori egiten, edo ez badu garaiz egiten, partikularrek gelditzen dira direktibatik jarraitzen diren eskubiderik gabe.

Eragintasun horizontal zuzenaren logika eta bidezkotzea berezia da. Zergatik ordaindu behar du partikularrek Estatu kidearen errua? Eragintasun bertikala Estatuako erruarekiko erremedioa da: Estatuak direktiba gauzatzeko epea zeukan baina arrazoi batengatik zein besterengatik huts egin du. Partikularrek beraz Estatuaren aurrean inboka dezake direktiba. Baina nola Estatuak ez

duen direktiba gauzatu berak ezin du direktiba inbokatu partikularren aurka. Estatuak ezin dute beren erruagatik profitatu. Partikularren kasuan, hauek ez dute inolako eragina Estatuaren gain direktiba gauza dezan, beraz ez dute direktibaren ez gauzatzeko erru edo erantzukizunik. Halere ez bazaizkie direktibatik jarraitzen diren eskubideak ezagutzen beste partikularren aurrean ordain ezazi egiten zaie nolabait Estatuaren erruagatik. Faccini Dori anderenoa ezin badu direktibaren xedapen argi, erabateko eta zehatzak epaile italiarraren aurrean inbokatu, gauzatzeko

lege italiarraren ezean kalte bat egiten zaio eta kaltea ordainerazten zaio Italiaren erruagatik.

VI. Auzitegiaren Erabakia

Auzitegiak Marshall jurisprudentzia gogoratzen du (152/84, 1986ko bilduma, orr. 723, 48. puntua): direktibak ezin du partikularren gain obligaziorik berez ipini, eta beraz ezin zaio bere aurka inbokatu. Tratatuak 189 artikulua direktibari ematen dion indar lotzaile edo behartzailea Estatu kide jasotzailearen aurrean bakarrik balio du, Estatuak ez dadila zuzenbide komunitarioaren betetze ezaz profitatu. Beraz direktiba Estatuaren aurrean inbokagarria da. Zentzu honetan Auzitegiak bere jurisprudentzia aipatzen du: fratelli Costanzo, 103/88, 1989ko bilduma, 1839 eta Becker, 8/81, 1982ko bilduma, 53).

Jurisprudentzia hau partikularren arteko harremanetara zabaltzeak partikularren gain batbateko obligazioak ezartzeko ahalmena Komunitateari ezagutzea suposatzen du, ahalmen hori erregelamenduen bidez bakarrik eman zaiolarik (24. puntua). Beraz beharrezkoak dira Estatuaren gauzatzeko neurriak partikularrek direktiben eskubideak epailearen aurrean eta beste partikularren aurka inboka ahal izateko (25. puntua).

Hemen amaitzen da eragintasun horizontalaren auzia. Baina Auzitegia ez da horrekin guztiz gustora gelditu eta irtenbide egokiren bat eman nahi dio Giudice Conciliatoreari (26. puntua). Von Colson eta Kamann (14/83, 1984ko bilduma, orr. 1891, 26. puntua), Marleasing (lehen aipatua) eta Wagner Miret (C-334/92, 1993ko bilduma, 1-6911, 20. puntua) aferetatik darion jurisprudentzia aipatzen du. Bere Estatuaren zuzenbidea aplikatzean, berdin lehenagoko zein geroagoko arauak izan, epaileak hori interpretatu egin behar du direktibaren testuaren eta helburuaren argipean, direktibak lortu nahi duen emaitza lortzearen eta 189. eta 5. artikuluekiko leialtasuna ziurtatuz. Estatuaren zuzenbidea direktibaren arabera interpretazioaren beharra hau epailearen zati xedatzailean ere agertzen da.

Eta hori posible ez balitz (27-29 puntuak), hortxe dago Francovich jurisprudentzia (lehen aipatua), alegia zuzenbide komunitarioak Estatu kidei beren direktiba gauzatzeko ezagatik eragindako kalteak konpentsatzeko obligazioa inposatzen die baldin eta direktiba horren helburua partikularrei eskubideak ezagutzea bada, eskubide horien edukia direktibaren xedapenak irakurriz ezagutzea badago eta Estatuaren obligazioa betetzerik ezaren eta

eragindako kaltearen artean kausazko erlazioa badago.

Afera honetan lehenengo bi baldintzak betetzen dira. Hirugarrena betetzen den erabakitzea Estatuko jurisdikzioari dagokio.

VII. Iruzkina kritikoa: aukera galdua?

Ez naiz gehiegi luzatuko epai honen iruzkinean. Lehen lehenik aipatzekoa da zeinen errazonamendu motza erabiltzen den eragintasun horizontal zuzena ukatzeko: ez dakigu zein den eragintasun hori ukatzeko arrazoia. 189. artikulua aipatzen da, baina artikulua horren testutik eragintasun bertikala bera ere ez da jarraitzen. Marshall jurisprudentziatik ere ez da eragintasun horizontal zuzenaren ukazioa jarraitzen. Abokatu Orokorren Iritziarekin alderatuz, are ta kriptikoago dirudi. Behar bada Auzitegiak ez du bere burua etorkizunerako gehiegi lotu nahi izan. Abokatu Orokorrek bere Iritzian direktiben eragintasun horizontal zuzenaren kontrako argumentuak aztertu eta gainditu egin dituen bitartean Auzitegiak ez ditu horiek aipatu ere egiten bere aurkako erabakia bidezkozteko.

Badirudi Auzitegiak pentsatzen duela eragintasun horizontal zuzena ez dela horren beharrezkoa, beste erremedioak dauden bitartean. Borroka ideologikoa bihurtu da ia-ia eragintasun horizontalaren arazo hau. Aldekoak aurrerakoak lirateke eta partikularren eskubideen defendatzaileak, eta kontrakoak kontserbadoreak eta Estatuaren interesen zaindariak. Ene ustez eztabaida hau antzua da. Eragintasun horizontal zuzena onartzen bada agian Estatu batzuk gustura geldituko lirateke, ez litzatekeelako horren premiazkoa izango direktiba bere zuzenbidetara itzuli eta gauzatzea, zenbait Estatutan legegintza nahiko geldo, delikatu eta konplikatu baita. Behin direktiba gauzatzeko epea amaitzen den, eta horretatik jarraitzen diren eskubideak nahiko argi, zehatz eta erabatekoak diren, eta epaileak eskubide eta obligazio horiek partikularren artean aplikatu dituen, Estatuak ez dauka direktiba gauzatzeko bultzarik sentitzen, eta oraingo egoeraren santzio faktorea desagertuko litzateke.

Pentsatu egin behar da halaber, askotan eskubidearen beste aldean obligazioa dagoela. Direktibak eragintasun horizontal zuzena izateak suposatzen du partikular batek eskubide bat inboka ahal izango duela epailearen aurrean beste partikular baten obligazioa ekarriz, eta hau, zenbait kasutan segurtasun juridikoaren aurka Joan daiteke partikular bati obligazioa inposatuko litzaikeelako Estatuari zuzendutako obligazioaren bitartez.

Aipagarria da Marleasing jurisprudentzia hartzen ari den garrantzia. Badirudi Francovich jurisprudentzia ultima ratio edo azkeneko baliabidea dela beste erremedioak balio ez

dutenerako (19) . Baina araberako interpretazioa (interpretation conforme) oso tresna bitxia da. Estatu kideen zuzenbidean interpretazioko erregelak berri bat agertu da Auzitegiaren eskutik: epaileak bere estatuko zuzenbidea aplikatu eta interpretatzean kontutan hartu behar du direktiba, nahiz eta direktiba hau oraindik barruko zuzenbidean gauzatuta ez egon, eta saiatu egin behar da direktibak lortu nahi duen helburua bere zuzenbidearen interpretazioaren bidez lortzen.

Jakina, zenbait kasutan ezinezkoa izango da hori barruko zuzenbide erregelak ezberdinak direlako. Kontratuei uko egiteko erregelak badaude zenbait Estatutan, eta horiek interpretatu behar dira ahal den neurrian kontsumitzaileen kontratuari uko egiteko eskubidea ziurtatzeko. Oso modu ezkutatuan zuzenbide komunitarioa Estatu kideen zuzenbidean sartzen da. Noski zuzenbide komunitarioa barruko zuzenbidea da, estatuko lege bat bezala edo konstituzioa bezala, baina direktibak ez dira zentzu horretan barruko zuzenbidea, itzuli eta garatu egin behar dira. Estatuko zuzenbidean sartzeko bide normala direktibaren garapena edo gauzatzea da, lege baten bidez esate baterako; baina gauzatze horren ezean, interpretazioaren bidez sartzen da zuzenbide komunitarioa. Lord Denning, Master of the Rolls (Court of Appealsko presidentea) zenak metafora polita asmatu zuen hauxe azaltzeko: zuzenbide komunitarioa itxasgora bezala da, erriotan sartzen da, oso urrutira igoz, bazterretako erreketan sartuz. Hortxe, ordea, amaitzen da irudia, zeren zuzenbide komunitarioaren itxasbeherarik ez dago.

(19) Pentsatu egin behar da gainera erantzukizuneko auzi berri bat hasi behar dela eta horrek denbora eta dirua suposatuko duela.

